

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 655/2019 Erabakia, urriaren 22koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak izendatu edo berritzea Arabako Mugikortasun Agintaritzan eta Gasteizko Udalarekin Future Mobility Lab diseinatu eta garatzeari buruzko azterlana egiteko izenpetutako hitzarmenaren jarraipen batzordean**

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da Arabako Mugikortasun Agintaritzan eta Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak Future Mobility Lab diseinatu eta garatzeari buruzko azterlana egiteko izenpetutako hitzarmenaren jarraipen batzordean Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkariak izendatu edo berritzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: I. eranskinean aipatzen diren Arabako Foru Aldundiko ordezkarien izendapenak eta kargugabetzeak onartzea foru administrazioak partaidetza duen erakundearen erregistroko kodeaz identifikatutako hainbat entitatetan.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko urriaren 22a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**

*I eranskina/ Anexo I*  
*Arabako Foru Aldundiaren ordezkariaren izandapenak eta kentzeak/*  
*Nombramientos y ceses de representantes de la Diputación Foral de Álava*

titularra/ordezkoa  
titular/suplente

kentzea/cese

izendapena/hombramiento

**02 DIPUTATU NAGUSIA**

392 COMISIÓN DE SEGUIMIENTO CONVENIO DIPUTACIÓN FORAL-AYUNTAMIENTO VITORIA-GASTEIZ PARA REALIZACIÓN ESTUDIO DISEÑO Y DESARROLLO FUTURE MOBILITY LAB  
 Patricia Pérez Aguirre, Mugikortasun eta Garraio zuzendaria  
 José Luis Cimiano Ruiz, Arlo Estrategikoen zuzendaria

**50 BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA**

391 AUTORIDAD DE MOVILIDAD DE ÁLAVA  
 Javier Hurtado Domínguez, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua  
 Carlos Ibarlucea Martínez, Bide Azpiegituren zuzendaria  
 Javier Mardones Gómez-Marañón, Zerbitzu Orokorren zuzendaria  
 Patricia Pérez Aguirre, Mugikortasun eta Garraio zuzendaria  
 José Luis Jiménez Barragán

Jesús María López Ubierna, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko for  
 Juan Felipe García Miravalles, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneren  
 Ana María del Val Sancho, Orokorren Zerbitzuen zuzendaria  
 María Ángeles Gutiérrez Ondarza, Mugikortasun eta Garraio zuzendaria  
 Borja Rodríguez Ramajo

titularra  
titularra  
ordezkoa  
titularra  
ordezkoa